

## Trainticek eta Mondragon Unibertsitateak ikerketa sustatzea erabaki dute.

2010/04/27

Mondragón Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak eta Trainticek duela bost urtetatik hona duten ikerketa-harremana berretsi dute ikerketa-hitzarmena sinatzean. Hartara, bi erakundeen arteko harremana gauzatuko da, eta Trainticek ikerketa-gela berezia izango du Mondragón Unibertsitateak Garaiko Campusean eraikiko duen eraikin berrian. Bertan, hain zuzen ere, Sistema Txertatuen Laborategia egongo da.

Horrela, bada, Trainticek eremu hori eta beharrezko material guztia erabili ahal izango ditu, eta ikasle zein prestakuntzan dauden langileekin lan egin ahal izango du hitzarmenean adierazitako ikergaietan.

Gaur egun, Traintic-en beharrei erantzuteko Telekomunikazioetan Ingeniaritza eta Informatikan Ingeniaritza egiten ari diren ikasleak parte hartzen dute ikerketa proiektuetan.

Estekak

- [www.pologaraia.es](http://www.pologaraia.es)

